

EMPAR PINEDA

Empar Pineda ekintzaile feministak, bere hitzaldia hasteko, esan zuen badirudiela azkenaldian Espainiako feminismoaz fenomeno berri bat izango balitz bezala hitz egiten duten ahotsak nabarmen ugaritu direla. Era berean komentatu zuen feministen eta lesbianen arteko arazoek garrantzia izan zutela mugimendu feministaren historiaren bilakaeran, baina ez zirela esaten den bezain jarraituak izan. "Ez da egia, eta gure tradizioaz harro egon beharko genukeela iruditzen zait. Ezinezkoa da feministek eta lesbianek bizi izan ditugun urte zailak ezkutatzea", esan zuen. *Desadostasunak. Feminismoaren Mutazioak* izeneko mintegian estatu espainiarreko mugimendu feministak bere garapenean bizitako une garrantzitsuenak eta gay eta lesbiana elkarteekin izan duen harremana azaldu zituen.

Empar Pinedak, hitzaldiari ekiteko, mugimendu feminista estatu espainiarrean zein unetan jaio zen azaldu zuen. Mugimenduarentzat, 1975. urtea oso urte garrantzitsua izan zen; izan ere, NBEk emakumearen nazioarteko urte izendatu zuen urte hori. "Horri esker, legedi frankistak aurpegia garbitu behar izan zuen, ezin baitzuen NBEren aurrean herrialdean nagusi zen legediarekin aurkeztu", kontatu zuen Empar Pinedak. Espainia, pixkanaka, 40 urtez bizitako erregimen frankistatik irteten hasia zen, baina oraindik emakumeen sexualitatea ukatzen zuen hezkuntza frankista gailentzen zen, "ez ginen izaki sexualak, gure sexualitatea gizonarekin hasten eta amaitzen zen", azaldu zuen. Gai horiez hitz egin ahal izatea iraultza bat izan zen emakumeentzat; hitz egin ahal izatea gizartean ematen ari zen aldaketa sakonaren adierazle zen. Une horretara arte debekatuta zeuden liburuak kontsultatzeko aukerak gorputzaren beraren aurkikuntza ekarri zuen berekin, "orduan jakin genuen klitoria zer zen, eta gure gorputzen behaketa praktika masibo bilakatu zen", azaldu zuen Empar Pinedak.



Mugimendu feministaren lehenengo urratsak 1975. urte amaiera aldera eman ziren, eta mugimenduaren kontsignek gure gizartea oso errotuta zeuden zenbait sinesmen desagitea –sexualitatea amatasunarekin eta gizonaren atseginarekin identifikatzen zuen sinesmena, esaten baterako– eta antisorgailuen despenalizazioa lortzea zuten helburu. Une horretan, feminismoa heterosexualitatearen eremuan mugitzen zen, Empar Pinedak azaldutakoaren arabera, eta borrokaren xedea emakumea izaki sexual gisa aldarrikatzea zen. 1976. urteko maiatzean I. Jornades Catalanes de la Dona izeneko jardunaldiak egin ziren Bartzelonan. 4.000

emakumek parte hartu zuten eta, Empar Pinedaren iritziz, iraultza ideologikoa sustatu zuten. Ordutik aurrera, mugimendu feminista oso bizkor garatu zen. Euskal Herrian lehendabiziko topaketak egin ziren, eta estatu espainiar osoan ugaritu ziren mugimenduari buruzko hitzaldiak, eztabaidak eta jarduera desberdinak.

Empar Pinedak, jarraian, mugimendu feministaren une historiko garrantzitsuenak zerrendatu zituen. Horien artean, 1979. urtean Granadan egin ziren jardunaldiak. 3.000 emakumek parte hartu zuten jardunaldi haietan, eta bertan sortu zen lesbianismoaren inguruko lehenengo eztabaida handia mugimendu feministaren barruan. "Guztia bi talde aurrez aurre jartzen zituen eztabaida baten inguruan gertatzen zen, berdintasunaren feminismoa bultzatzen zuen taldea eta desberdintasunaren feminismoa bultzatzen zuena. Bigarren talde hori da separatismo lesbianoaren aldeko kide katalan batek defendatzen zuena".

Handik gutxira, lanak bultzatuta, Bartzelona utzi eta Madrilera joan zen Empar Pineda. Bizileku aldaketa horri esker hiri bateko eta besteko lesbiana mugimenduak zein desberdinak ziren ohartu zen. "Lesbianak oso eroso bizi ginen Bartzelonan bizi genuen ikusezintasunean edo ikuspen ahulean, baina beste lekuetan ikusezintasun hori erabatekoa zen", esan zuen Empar Pinedak. Handik gutxira, Madrilgo lesbiana taldeak mugimendu feministaren garapena baldintzatu zuen gaietako bat planteatu zuen. Madrilgo lesbianek proposatu zutena da une hartara arte gay mugimenduaren edo mugimendu feministaren ikusezintasunean militatu zuten lesbiana guztiek bat egitea eta batera jardutea.



Hori horrela, 1981. urtean Lesbiana Feministek Kolektiboa sortu zen. Kolektibo horretan Gaztelako Liberazio Homosexualerako Frontea izeneko elkartetik zetozen lesbianak eta mugimendu feministatik zetozenak biltzen ziren. "Eztabaida luzeak izan genituen horrelako kolektibo batek izan behar zituen helburuen inguruan, baina azkenean hiru xede ezarri genituen: 1) kolektiboak pozik eta harro bizitzen laguntzea nahi genuen, 2) mugimendu feministak lesbianismoa aukera legitimo gisa defendatzea nahi genuen, eta 3) kolektiboak aukera hori ezagutarazteko eta legitimatzeko balio izatea nahi genuen." Azaldu zuen Empar Pinedak. Kontzientzia sozialean eragitea izan zen Lesbiana Feministen Kolektiboaren kezkarik handiena, sexualitatearen inguruko hausnarketan aurrera egitea lehentasun bat zen. "Sexualitate librearen eta atseginarenean ikuspegiaren alde borroka egitea pertsonen zorientasunaren alde borroka egitea da. Mugimendu ezkertiarak eskaera hori jaso zezaten konbentzitu behar genituen, eta eskaera horren barruan feminismoaren defentsa zegoen. Lesbianismoaren aldeko borrokari dagokionez, urte oso aberats

eta aktiboak izan ziren haiek”, esan zuen Empar Pinedak. Kolektiboak aldizkari bat sortu zuen: *Nosotras que nos queremos tanto*. Aldizkari horretan autore ingeles eta frantsesek lesbianismoari buruz idatzitako artikuluak argitaratzen ziren. Aldizkariaren xedeetako bat zen mugimendu feministak aurreiritzirik gabeko sexualitatearen ikuspegia kontuan hartzea, eta oraindik ere feminismoaren eremu ziren muga horietatik, hots, heterosexualitatetik irtetea. Argitalpenak oihartzun handia izan zuen talde feministen artean eta, denborarekin, bertan argitaratzen ziren artikuluak eztabaidarako material bilakatu ziren estatu espainiarreko mugimendu feministarentzat.

1988 urte oso berezia izan zen feminismoarentzat: aborturako eskubidea aitortzea lortu zen, baina, aldi berean, kezka nagusitzen joan zen mugimenduaren barruan. Erlaxazioak geldialdia ekarriko zuela pentsatzen zuen jendeak, eta, horregatik, indarkeria matxistaren aurkako borroka aktibatu zen. Santiagon egin ziren mugimendu feministaren inguruko jardunaldien ardatz nagusia emakumeen aurkako indarkeria izan zen, baina sexualitateari buruzko eztabaida sutsu bat ere piztu zen. Lesbiana talde batek fantasia sexualei eta pornografiari buruzko ponentzia bat egin zuen, eta horrek mugimendu feminista osoa gai horren inguruan jarrera hartzera bultzatu zuen. “Bazirudien militante feminista izanez gero ezin zenituela ez fantasiak eduki eta ezta pornografiak gozatu ere, puritanismo-maila eta beldurra izugarriak ziren. Eztabaidak sutsuak izan ziren, eta mugimendua bi jarrera desberdinen inguruan bereizi zen: sexuaren aldeko jarrera eta sexuaren aurkako jarrera”, esan zuen Empar Pinedak.

80ko hamarraldi amaiera arte, lesbianen mugimenduaren borroka hainbat gaien salaketan eta bere hedapenean oinarritu zen. Hamarraldiaren amaiera aldera, mugimendu feminista osoaren babesa zuen plataforma bat sortu zen, eta *Desde nuestra acera* jaio zen. Argitalpen horren helburua lesbianen eguneroko bizitzara hurbiltzea zen. Baina mugimenduaren indarrak gainbehera egin zuen, eta zenbait ekintzailek, Empar Pineda bera tartean, CLYP (Colectivo de Lesbianas y punto) sortu zuten. 1995. urtera arte lan egin zuten kolektibo horretan. Une horretatik aurrera, Empar Pineda beste proiektu batean sartu zen sexu-langileen eskubideen alde borroka egiten duen Hetaira kolektiboko kideekin, “transexualak, lesbianak, prostitutak... barnean hartuko zituen liberazio sexualeko mugimendu bat izango zen horren enbrioia sortzeko helburuarekin egin genuen bat, eta proiektu horrek bizirik dirau”.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago.

Hemengo testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

- [gazteleraz](#)
- [ingelesez](#)